



## HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

**Data:** 2023-02-15 **Bilera zenbakia:** 31

**Bilera ordua eta lekua:** 18:30ean kulturgunean

**Parte-hartzaileak:** Rosario eta Mari (Bizi nahi elkarte), Monica (Guraso elkarte), Nagore (zinegotzia) eta Nerea (teknikaria)

## LANDUTAKO GAI ORDENA

### 1. Azken batzordeko etxeko lanak.

- ✓ Argiteria arazoa eta zapatariko konponketak bideratu; bideratu dira dagokion sailera.
- ✓ Jubilatutako armarioa; ez da horrelako motatako altzaririk topatzen, bestela arotzen bati egiteko esango diogu.
- ✓ Agendan txertatzeko ekintzak badaude esan; beti gogoratzeko kontu bat da, hileko agendan txertatzeko.
- ✓ Batzarren berri eman taldeetan
- ✓ Talo janean izena emateko esan taldeetan
- ✓ Medikuaren gaia argitu; Bileraren berri eman da.

### 2. Ekintzen balorazio laburra

Urtarrilak 20: Talo ikastaroa. Hurrengo talo ikastarorako haurrekin tailer bat eta helduekin beste tailer bat egitea egokiagoa ikusi da.

Urtarrilak 28: Talo jana: Ondo joan zen, jende ugari bildu zen.

Otsailak 2: Hitzaldia "haur eta nerabeen sexualitatea" ondo joan zen, 10 bat lagun elkartu ziren.

Otsailak 14: Haur tailerrak: Haur asko etorri ziren eta Anne ezinean ibili omen zen.

### 3. Hurrengo ekintzak herrian

Otsailak 15: Herri eguna antolatzeko bilera

Otsailak 16: Anbulatoria egoera

Otsailak 18: Zuhaitz eguna izena eman behar da

Otsailak 24: Txotxongiloak

Otsailak 25: Harro adi ekitaldien hasiera

Otsailak 26: Mus txapelketa

Martxoak 1: Eskola kirola hausnarketa

Martxoak 4: Emakume eguneko bazkaria Pantxika lamur bakarlaría

Martxoak 8: Elkarretaratzea

Martxoak 10: Oihalezko konpresak tailerra

Martxoak 11: Harri adi ekintza

Martxoak 17: Elbira dokumentala

#### 4. Besteak

- Herriko ekintzetan egiten diren ekintzetan zaintza eta hizkuntza irizpideak; Ez dugu bileran tratatu.
- Irakurzaletasuna bultzatzeko altzariak; Ondo daude, material berriaz elikatu behar dira.
- Hileko kultur agenda baloratu; Ondo baloratu da, baino batzuk oraindik ez diote jaramonik egiten.
- Hurrengo batzordea martxoaren 8an beharrean 15ean egingo dugu.
- Xake ikastaroaren berri eman da, asteazkenetan jubilatuko elkartean egin nahi da.
- Bizi nahi elkartean bi ordenagailu omen daude, erabiliko ez direnak. Iker informatikoari esan.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Zuhaitz eguna izena eman</i>	<i>Denok</i>	<i>Ostegunerako</i>
<i>Ekintzarik bada aipatu agendan sartzeko</i>	<i>Denok</i>	<i>Hilabetea amaitu aurretik</i>
<i>Xake ikastaroa komentatu</i>	<i>Jubilatuk</i>	<i>Bilera egiten dutenean</i>
<i>Guraso elkarteari zuhaitz eguneko link-a bidali</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzordea eta gero</i>

#### HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera: Martxoak 15, asteazkena 18:30etan HERRI BIZITZA BATZORDEA 19:00etan HERRI EGUNA ANTOLATZEKO BILERA**